Ikusirik, UDALHITZ osatzen duten dokumentuak onesteko proposamena. Dokumentu hauek Udal ordezkari eta ordezkari sindikalek sinatuta daude.

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren.

Jose Ignacio Otermin zinegotziak ondorengo adierazten die bertaratutakoei:

“Bere momentuan CC.OO, ELA UGT eta Eudelek firmatu zuten akordio marko bat; bertan langileen egoera aztertzen da. Orain dela astebete, mahai bat osatu zen ; udalaren partetik ni egon nintzen eta CC.OO eta ELA sindikatuak. Bertan sinatu genuen aipaturiko hitzarmen markoa. Gainera langileentzako akordio markotik gora edo aparte dauden hobekuntzak sartu egin behar dira. Anoetako kasuan, 2002 urte geroztik eta urtez urte, bai funtzionarioei eta bai lan-kontratadun langileei, EUDEL-ek EUFALEBA hitzarmeneko ordainsarien taula oinarritzat hartuz urte bakoitzerako proposatutako urteko ordainsariari % 0,125eko igoera aplikatzen zaio. Guzti hau da udalbatza honetan onetsi behar dena”.

Partaideek aho batez onesten dute UDALHITZ osatzen duten ondorengo dokumentuak onestea:

- Euskadiko Tokiko Erakundeen Lan Harremanetarako protocolo markoa.
- Euskadiko Toki Erakundeetako Funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena.
- Euskadiko Toki Erakundeetako lan-kontratadun langileen lan baldintzen hitzarmen kolektiboa.
- Anoetako Udaleko hobekuntzak jasotzen dituen eranskina.

Vista la propuesta de aprobación de los documentos que compone UDALHITZ firmados por el representante del Ayuntamiento y los representantes sindicales.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

El Sr. Concejal Jose Ignacio Otermin manifiesta a los presentes:

Se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar los siguientes documentos que componen UDALHITZ:

- Protocolo marco de relaciones laborales para las Instituciones Locales de Euskadi.
- Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo de los funcionarios de las Instituciones Locales Vascas.
- Convenio colectivo de las condiciones de trabajo del personal laboral de las Instituciones Locales Vascas.
- Anexo en el que se recoge las mejoras aprobadas por el Ayuntamiento de Anoeta.

9.- 2006 URTEKO AURREKONTU OROKORRA ETA PERTSONALAREN PLANTILA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak 2006 ekitaldirako aurkeztu duen Aurrekontu Orokorra ikusi ondoren.

Ikusirik, 2006 ekitaldirako Plantila Organikoa eta Lanpostu Zerrenda.

Udaletxeko Idazkari Orokorrak egindako txostenak ikusirik.

Alkate jaunak zera adierazten die partaideei:

Visto el Presupuesto General para el ejercicio 2006 presentado por el Sr. Alcalde.

Vista la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el ejercicio 2006.

Vistos los informes emitidos por el Secretario General del Ayuntamiento.

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes:

“2006 urteko aurrekontuaren inguruan 2.033.901 eurotako aurrekontua daukagu. I. Kapituluari, pertsonal gastuak aurreko urtetatik gehikuntza nabarmena daukate bi arlotan: batetik aurrirakusten da aintzinasuna, orain arte aplikatzen ez zaien langileei aplikatzen zaie, bigarren esan nolabait aurrirakusten da kiroldegia kudeatuko duen pertsona hori. II. Kapituluari, seguru aldetik gehikuntza inportantea eman da. Gastuetan lehengo urtearekin konparatuz zertxobait jeitsi egin da; batipat inbertsioak. Lehengo urtean 600 eta zerbait ziren aurtan 300 eta zerbait. Udalak aurretik zeukan konpromisoak erantzunez eta behar beharrezkoak diren gauzei bakarrik aurre egingo zaie. Inbertsioetan, dirulaguntzarekin lagundutako inbertsioak hartu dira kontutan. Ingresoak arabera, ingresoak erantzuten die Foru aldundiarekin bere garaian, 2004ean, egin genuen plan finantziarioaren hildotik jarraituz nolabait Anoetako Udalak zeuzken konpromiso ekonomikoak erantzun ahal izateko bideratzeko jarri ziren pausoak, horiei jarraituz eta beste aldetik baita ere Fondo Foralak kontsideratzen duen igoera % 8/9 izan da aurtan. Horrez gain subentzietatik lortuko diren diru kopuruak. Hor geratzen da orokorrean komentatzeko”.

Ondoren, alkate jaunak ondorengo botutara jartzen du:

- a) 2006 ekitaldirako AURREKONTU OROKORRA.
- b) 2006 ekitaldirako AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA.
- c) PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA

partaideek aho batez onetsiz:

A continuación, el Sr. alcalde somete a votación:

- a) EL PRESUPUESTO PROPIO para el ejercicio 2006.
- b) LA NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA para el ejercicio 2006.
- c) LA PLANTILLA ORGANICA Y LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO

aprobándose por unanimidad de los reunidos:

Lehenengo.- 2006 ekitaldirako aurkeztu den Aurrekontu Orokorra, atal guztietan, kapituloka ondorengo izanik:

Primero.- El Presupuesto Propio presentado en todas sus partes para el ejercicio 2006 de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:

SARRERAK /INGRESOS

KAP./ CAP	IZENDAPENA/DENOMINACIÓN	EUROAK/ EUROS
1	ZUZENKO ZERGA/IMPUESTOS DIRECTOS	328.106
2	ZEHARKAKO ZERGA/IMPUESTOS INDIRECTOS	30.000
3	TASAK ETA BESTE. SARRER/TASAS Y OTROS INGRES	286.300
4	TRANSFEREN.ARRUNTAK/TRANSFEREN.CORRIEN.	1.051.105
5	ONDARE-SARRERAK/INGRESOS PATRIMONIALES	1.150
6	INBERTS. ERREL.BESTEREN/ENAJEN. INVERSIÓN. REALES	1.803
7	KAPITAL TRANFERENTZ/TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	93.244
9	FINANTZA PASIBOAK/PASIVOS FINANCIEROS	242.193
TOTAL		2.033.901

GASTUAK/GASTOS

KAP/ CAP	IZENDAPENA/DENOMINACIÓN	EURAK/ EUROS
1	PERTSONAL GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL	622.949
2	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERB.EROSKETA/COMPRA BIENES CTES Y SERVICIOS	735.559
3	FINANTZA GASTUAK/GASTOS FINANCIEROS	82.373
4	TRANSFEREN. ARRUNTAK/TRANSFERENCIAS CORRIENTES	241.609
6	INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES	327.027
7	KAPITAL TRANFEREN,/TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	9.076
8	FINANTZA AKTIBOAK/ACTIVOS FINANCIEROS	0
9	FINANTZA PASIBOAK/PASIVOS FINANCIEROS	15.308
TOTAL		2.033.901

Bigarren.- 2006 ekitaldirako Aurrekontu gauzatzeko Udal Araua.

Segundo.- La Norma de Ejecución Presupuestaria para el ejercicio 2006.

Hirugarren.- Ondorengo Plantila Organikoa eta Lanpostu Zerrenda:

Tercero.- La plantilla Orgánica y la relación de puestos de trabajo presentada, siendo ésta:

2006. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) FUNTZIONARIOAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	<u>6/89 Legeko</u> <u>43. art</u> <u>arabera</u>	Egoera	Oharrak
1. Idazkari--Kontuhartzailea	1	B	J	
2.- Administrazio Orokorreko teknikaria	1	A	H/I	
3.- Kultur dinamizatzailea	1	B	j	
4.- Administrataria	1	C	J	
5.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	D	J	
6. – Administralari laguntzailea	2	D	H/I	

B) LANGILEGOA

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Oharrak
1 Aparejadorea	1	B	F	Dedikazioa % 68,60
2 Gizarte laguntzailea	1	B	H	Dedikazioa % 48
3 Liburtegi Arduraduna	1	C	F	Dedikazioa % 52
4 Kale garbitzailea	1	E	F	
5 Eraikin garbitzailea	1	E	F	
6 Zerbitzu anitzetako langilea	1	E	F	

EGOERA

J: Jabea

F: Behin betiko

H: Bete gabe

I: Bitarteko pertsonalarekin betea

2.- LANPOSTUEN ZERRENDA

A) Karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGIAK		TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET. ERA	E.TIT	DED.	OHARRA K
		DESTINU	ESPEZIF				KOEF	DER.DAT				
Idazkari-Kontuhartz.	1	20	16.753	B	GN	I-K	4	94.XII.31	L	ZD/ED	%100	DBO%25
Admin. Orokorre teknikaria	1	21	12.239	A	AO	T	4	06.II.16	LO	ZL	%100	
Kultur dinamiza.	1	17	6.158	B	AA	EB	3	00.XII.31	LO	D	%100	
Administrataria	1	14	10.933	C	AO	AD	3	94.XII.31	LO	B	%100	
Administr. Lagun.	1	11	9.945	D	AO	LG	2	92.XII.31	LO	O	%100	
Administr. Lagun.	1	11	9.945	D	AO	LG	2	94.XII.31	LO	O		
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	11	12.298	D	AA	HL	2	94.XII.31	LO	O	%100	

B) Lan—hitzarmendun langile finkoentzat erreserbatutako lanpostuak

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIAK DESTINU OSAG. OSAG. ESPEZIF	TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEf	DER. DATA	BET.ER A	E. Tit	DED.	OHARRAK
Aparejadorea	1	19	10.394	B	3	02.XII.31	LO	AT	%68,60
Gizarte Laguntzailea	1	14	4.852	B	3	92.XII.31	LO	GZD	%48
Liburutegiko ardura.	1	9	4.454	C	3	92.XI.31	LO	B	%52 (1)
Kale garbitzailea	1	7	8.346	E	1		LO	EZ	%100
Eraikinen garbitz.	1	7	8.346	E	1	92.XI.31	LO	EZ	%100
Zerbitzu anitzetako lang.	1	7	8.346	E	1	00.XII.31	LO	EZ	%100

(1) Donostiako Lan arloko 4. epaitegiaren sententzia fijo izendatuz

KLABEAK/CLAVES

TALDEA EDO ESKALA/GRUPO O ESCALA

GN: GAIKUNTZA NAZIONALA/HN: HABILITACION NACIONAL
AO: ADMINISTRAZIO OROKORRA/ AG: ADMINISTRACION GENERAL
AA: APARTEKO ADMINISTRAZIOA/ AE: ADMINISTRACION ESPECIAL

AZPIESKALA/SUBESCALA

I-K: IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/S-I: SECRETARIA-INTERVENCION
EB: EGINBEHAR BEREZIAK/ CE: COMETIDOS ESPECIALES
T: TEKNIKARIA/T: TECNICO
AD: ADMINISTRARIA/AD: ADMINISTRATIVO
LG: LAGUNTZAILEAK/AU: AUXILIARES
HL: HERRI LANETAKO LANGILEAK/PO: PERSONAL OFICIOS

PROBISIO ERA/FORMA DE PROVISION:

L:LEHIAKETA/ C: CONCURSO
LO:LEHIAKETA-OPOSAKETA/CO: CONCURSO-OPOSICION

ESKATURIKO TITULUA/ TITULACION EXIGIDA

ZD:ZUZENBIDE DIPLOMATUA/DD: DIPLOMADO DERECHO
ED: ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA/DE: DIPLOMADO EMPRESARIALES
ZL: ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA/LICENCIADO EN DERECHO
D: EDOZEIN DIPLOMATURA EDO ERDI MAILAKO UNIBERTSITATE TITULOA, EDO LIZENTZIATURAKO LEHENENGO HIRU URTEAK GAINDITUAK/D: CUALQUIER DIPLOMATURA O TITULO UNIVERSITARIO DE GRADO MEDIO, O APROBACIÓN DE TRES PRIMEROS CURSOS DE CUALQUIER LICENCIATURA UNIVERSITARIA.
AT: ARKITEKTU TEKNIKO/AT: ARQUITECTO TECNICO
GZD: GIZARTE ZERBITZUETAN DIPLOMATUA/DTS: DIPLOMADO EN TRABAJO SOCIAL
B: BBB EDO BALIOKIDEA/B: BUPO O EQUIVALENTE
O: OHO EDO BALIOKIDEA/E: EGB O EQUIVALENTE

Laugarren.- Hasierako izaeraz onetsi de nurrekontua, plantila organikoa eta lanpostu zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duen eran.

Aurrekontua jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko izaeraz honetsita geratuko da, eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz-kapitulu laburririk.

Bostgarren.- Aurrekontua, behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantila Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagokion departamenduetara.

Cuarto.- Publicar el presupuesto aprobado inicialmente, así como la plantilla orgánica de personal y la relación de puestos de trabajo, en el Boletín Oficial de Guipúzcoa, conforme lo exige la legislación vigente.

El presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el plazo de exposición al público no se hubiese presentado reclamación alguna, debiendo anunciarse nuevamente en el Boletín Oficial de Guipúzcoa resumido por capítulos.

Quinto.- Remitir copia del Presupuesto Propio definitivamente aprobado, así como de la Plantilla Orgánica del personal y la Relación de Puestos de Trabajo, al correspondiente Departamento de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

10.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erreguen garaiari, ondorengoak egon dira:

1. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Aktari buruz aipatu azkeneko bi urte badirela guk informazioa, aktarik ez dugula jaso. Apirilean ospatutakoa oraindik ekainean ez dugu jaso, ez dakit huri aktak ez digute ematen edo...”

Alkateak erantzuten dio:

“Ez duzu jaso?, hartuko dugu nota.

2. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Nik 129 dekretuan jakin nahi nuke zer gertatzen den Mendikute jaunak maiatzaren 4ko alkate-dekretuaren aurka tarteratutako Administrazioarkeiko auzi-errekurtsoari buru.”

Alkateak erantzuten dio:

“Gai honen arian gero badugu beste puntu bat. Hobe izango da bi zatitan tratatu orde zati batean tratatzea; gero argibideak etorriko dira”.

3. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Beste alde batetik 180 dekretuan, zera agertzen da “se hace constar la incompatibilidad del aparejador municipal D. Andres Oiarbide Antia, para la formalización y adjudicación d ellos referidos trabajos, en consecuencia la consiguiente RESOLUCIÓN no se ajustaría a la legalidad”. Nik bi gauza azpimarratu nahi nituzte: 1) Idazkariak esaten duenez, legalitate ondoan ez dago dekretu hau eta bestea da euskera, gure hizkuntza maitea ez dakit nola erabiltzen den. Udal barneko gauza guztiak salto egiten ditugu, erderaz egiten dugu eta resoluzio honetan gainera legala ez dela. Argitu hau mesedez.”.

Alkateak erantzuten dio:

“Bere garaian kontsulta egin zen. Nekanerena iritzi bat da. Kontsulta egin zen eta ez zen horrelako arazorik ikusi eta horrela bideratu zen proiektu hau, obraren direkzioa ematea. Ez da gai honetaz egin den lehen. Lehen ere Udal-teknikariari eman izan zaio obretarako zuzendaritza”.

Bertaratutako dio:

“Bai dekretua eta idazkariak egiten duen ilegalitate txostena hor daude, baina zuk esaten duzun txosten hori inongo arazorik ez dagoela, non dago?”.

Alkateak erantzuten dio:

“Kontsulta telefoniko baten bidez emandako informazioa da”.

Bertaratutako batek dio:

“184 dekretuan, udalaren eta idazkariaren aurkako kontentzioso-administratibo bati buruz hitzegiten da. Zer da hau?”.

Alkateak erantzuten dio:

“Aurreko legislaturan kontratatutako langile batek eduki zuen arazoa. Bere perfila ez zen behar bezala ajustatzen zeukan lanposturako. Horren ondorioz etorri zitzaion nolabaiteko sobrekarga bat; garai horretan udalan zegoen egoera administratiboari berak ezin izan zion buelta eman. Horren ondorioz, bere ustetan, egiten zitzaion eskaera neurria mailatikan gorakoa zen, honek, berari ondorio batzuk ekarri zikion eta ondorio horiek orain nolabait reklamatzen ditu, ondorio honen ondoren geratu zazkion

galerak. Horretarako errekurtsio bat jarri du eta guk honen kontra udalaren postura babesteko jarri dugu kontentziosoa”.

4. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Aurkezturiko proposamenaren arabera jakin nahi nuke zenek izango duen prioridadea, ez dut sinisten esaten baduzu hemen dagoen guztiari indar eta gogo berbera emango zaiola”.

Alkateak erantzuten dio:

“Aipatu behar da Agenda 21 ez dela urte batean edo bitan egiteko zerbait, nolabait eguneroko eginbeharrean osatu beharreko zerbait bizik. Zein izango da honen muga, dudarik gabe bat behintzat faktore ekonomikoa, guztioi gustatuko litzaiguke Anoeta idilikoa izatea baina hori izateko behar da baliabide ekonomikoa asko. Posible den neurriak markatuko dira helburuak, oraindik markatu gabe daude. Ekintza plana markatzeko dago eta hau markatzen denean jarri beharko dira lehentasunak”.

Bertaratutako batek dio:

“Diagnostiko honetan AHT kontutan hartzen ahal da?”.

Alkateak erantzuten dio:

“Hori baloratuta ez dago, oraindik ez dakigulako nondik ziur pasatuko den. Aurreproiektu batzukin nahiz eta gertuasun handi batekin finkatuta egon, guri esan digutenez badaude estudioak eginda eta agertzen dira batipat hotsarena eta lur mugimenduak ekarriko duen ondorioak baina guk ez daukagu proiektua eskutan eta hau eskutan dugunean izango dugu informazioa”.

Bertaratutako batek dio:

“Zein izan da jendearen partehartzea agenda 21ean?”

Alkateak erantzuten dio:

“Parte hartzea oso eskasa izan da eta eskasa izan den neurrian iritziak ere horretara mugatuak izan dia eta orduan zentzu honetan b i lagunen iritzia ez da herri osoarena, beraz hor sopesatu behar dira gauzak”.

Bertaratutako batek dio:

“300 herritarrek eginiko sinadurak, hor batere ez da kaso egin”.

Alkateak erantzuten dio:

“Nik aste honetan entzun dut jarriko del ainformazio bulego bat bolantea, herriz-herri informatuko duena eta dudarik duena bertara joan eta han argitu beharko du”.

6. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Para constituir la Junta de Compensación, es un problema que también existe en la cooperación al desconocer los herederos difícilmente podemos llamarlos. Creemos que no ha habido mala fe por nuestra parte y de alguna forma nosotros a finales de diciembre solicitamos la prórroga que todavía no ha sido contestada”.

Beste bertaratutako batek dio:

“Ematen du nahi duguna egiten ari garela! Gutxienez eman ditut 50 buelta.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Mila dokumentu eta mila gauza ekarri dituzue. Momentu honetan Orbinok alde batetik eta Udalak beste alde batetik bi ikuspuntu desberdin ditugu. Zer egin behar den hor, noraino ailegatu behar den, dena osatu behar den ala ez, Udalak bere aldetik jarraitzen ari da tramite batzuk, Orbinok bere aldetik pentsatzen du hori gehiegi dela edo momentu honetan ez zaiola hainbeste eskatu eta hor dago eztabaida bat, ez dugu aurkitu irtenbide bat eta hortarako daude Tribunalak eta hara joan gara. Udalak egin du urbanismo mailan dauden pauso guztiak aurrera eraman eta Orbinok kontra dagoelako jarri ditu bi errekurso”.

Bertaratutako batek dio:

“Guk oraindik ez dugu kontsegitu lehengo udal eta oraingo udalak horretaz hitz egitea. Guk esaten dugu hitzegindako guztia bete dugula goitik behera eta oraindik nik ez dut kontsegitu zuek galdetzea aurreko udalari hitzegindako gauzak egin diren ala ez”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Gauza bat, ailegatu zineten aurreko udalarekin hitzarmen batetara, ya prestatuta zegoen firmatzeko eta ailegatu ziren hauteskundeak, udala bertan behera geratu zen. Prestatuta zegoen hitzarmena, zegoen bezala firmatu da, ez genuen aldatu koma bat ere. Garbira pasa eta firmatu egin genuen”.

Bertaratutakoak dio:

“Lehen esan dut eta berriro ere, hain zaila ahal da galdetzea aurreko udalari definitiboki ea eginda dauden pauso guztiak? Mila biztanleko udala da hau!”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Suposatu dezagun, alkate ohiak eta Perikok esaten dutela bai hitzez esan zena bete egin dela. Eta hitzarmenak beste gauza bat esaten badu, zer egin behar dugu?”.

Bertaratutakoak dio:

“Zer jartzen dik ba? Bakarrik konpletatzeko zeozer baina papera baino lehenago daude pertsonak eta hauei galdetu, askoz errazagoa da!. Ni ez naiz ibiliko lau urtetik lau urtera asunto horrekin. Esan dudana esan dut, pertsonak dira, bizi dira eta gainera gertu.”

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Zuk lehenengo proiektu urbanistikoa aurkeztu zeuenean, han garbi eta argüi esaten zenuen nola egin behar zen debatean dagoen bidea. Gero proiektua aldatu zendun eta...”

Bertaratutakoak dio:

“Hori ez da egia, zuek eskatu didazue proiektua aurkeztea gutxienez dozena erdi bat aldiz nola presentatu eta erantzun: ikusiko dugu posible den ala ez aurrera eramatea. Hau horrela ez dakit zenbat proiektu presentatu ditugun eta gero nahi duzuen ateratzen duzue. Errezagoa da galdetzea hitzegin genuena egin dagoen ala ez, eta hori ez duzue egin nahi”.

Beste bertaratutako batek dio:

“Aurreneko momentuan nik eman nuen asuntoa eta txosten tekniko batzuk zeuden eta uste dugu guztiak bete direla. Gero azaldu dira gauza batzuk, hor daude paperak eta denak bete dira, orain ataskatuta gaude, guk ez dugu behin ere jakin zergaitik”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Dudarik ez iritzi ezberdinak direla, berirro prestatuko bagenu aurrera jonago zen. Ala ez da izan eta horregatik izan dira dekretuak eta kontentziosak”.

Beste bertaratutako batek dio:

“Lo que está claro es que la Junta de Compensación no se va a poder constituir y llegará un momento que habrá que solicitar que el Ayuntamiento proceda a la finca para que se lleve a cabo la expropiación, quereis llegar a eso o verdaderamente quereis llegar a determinar quienes son los herederos de Pasaban?”. El trámite de la Compensación o bien representa una reparcelación voluntaria que todos están en común acuerdo pero en estos momentos hay uno que ha fallecido, no se conocen los herederos. Si se va con el proyecto de Compensación encontramos que hay que constituir la Junta. Entonces hay que dar un plazo para que se abdieran los herederos a la Junta de Compensación. Como no sabemos quienes son, el problema es haber como los citas. Se nos ha juzgado de mala fe, los únicos que estan produciendo dilación en todos los conflictos es por parte del Ayuntamiento. Creo que es causa más que justificada para que se no de una prorroga o intenten localizar a esos herederos. Habeis adoptado la propuesta de aprobar inicialmente”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Te leo en castellano el acuerdo”.

Bertaratutakoak dio:

“Por supuesto, haremos alegaciones y si lo aprobais definitivamente iremos al Contencioso”.

7. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Aurreko udalaren akatsa izan zen transformadorea proiektuan derrigorrez egon behar zuena ez jasotzea?”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Hor aldaketa bat egon zen. Legearen aldaketa bat 2002/99an ez dakit ziur ze urtetan. Ordurante Iberdrolak jartzen zituen egiten ziren eraikuntza guztietan “Centro de Transformación” delakoa. Merkatu librearen fenomenoaren arabera lege aldaketa egon zen eta ondorioz promotore berak jarri behar zituen zentro horiek. Proiektua egin zenean aurrirakusten zen Iberdrolak jarri behar zuela eta gero ya proiektua gauzatzen denean teknikoak infomatzen digu zentro transformazioa egin behar zela eta hortik dator honen historia. Proiektua egin da eta gauzatzen da, pleno honetan proiektu hori onetsi da”.

Bertaratutakoak dio:

“Nik hori azalduz, txosten-teknikoa ez dut ikusten.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Rai Mendiburuk egin zuen”.

Bertaratutakoak dio:

“Guk hori badugu, galdetzen dut txosten hau bakarrik dagoen edo lege aldatetari buruz besteri badagoen?”

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Nik ez dut esan txostenik egon zenik, fax bat egon zen, abiso bat, beste ingeniero batek egin zuen, argindarretaz arduratzen denak egin zuen txosten bat esanez berak eskeintzen zuela aukera hori transformazio zentroa jartzeko eta hortik hasi ginen hariari tiraka”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Rairi entzunda argindarraren proiektua ingeniero horrek egin zuen ez Rai bera arkitektu bezala baizik eta enkargatu zion ingeneri horri . Horregatik ez zen jarri transformadorerik, berak esan zuen ez zela egin behar eta momentu batean lege aldatzen da eta ailegatu zen abisoa, egin da proiektua eta Rairi enkargatu zitzaion txostena, baina nik uste dut txostena abisu bat izan zela esanez gauzak aldatu zirela eta hortarako egin behar zela”.

Alkateak dio:

“Aurretik onartutako proiektua izan zen eta aurreko Udalbatzari galdetu beharko diozu nola onartu zen proiektu hori zentro transformaziorik gabe”.

9. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Nik jakin nahi nuke Aurrekontuaren gainean , kiroldegia kudekata integrala abian jartzeko giza baliabideak ia 699 eurokoak dira.fZuek uste duzue pertsona batek bakarrik kudeatzeko gai izango dela eta horrek ematen du gutxi gora behera sei hilabeteko lana egunean zortzi egun eginez”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Hasi egin behar da eta gero bidea egin” .,

Bertaratutakoak dio:

“Zeinek egingo du garbiketa, badago partidarik horretarako)”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Langileak badauzkagu udaletxean, garbitzaileka badaude “.

Bertaratutakoak dio:

“Zer egiten dute orain, etzanda egon?. Beste alde batetik, I. Kapituluak, zuzeneko zergak, zuzeneko 16,45 igo duzue. Ez zait iruditzen oso sozialki lanean ari garenik”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Anoetak zerbitzu mordo bat du eta erantzun behar zaie, zerbitzu horiei herritarrek erantzun behar diegu. Kiroldegia ordaintzeko norbaitek jarri behar du dirua eta herritarrok jarri beharko dugu”.

Bertaratutakoak dio:

“Nola ordaintzen dira inbertsioak, zerga bidez? Nik ez dut entzun inongo herri eta ez naziorik hori egiten duenik”.

Otermin zinegotziak erantzuten dio:

“Aprobatu zirenean aurrekontuak kiroldegia egiteko azaltzen ziren hainbat lekutik dirulaguntzak jasoko zirela, Eusko Jaurlaritza, Diputazioa...baina galdetu eta eskaerarik egin gabe eta horrela egin ziren aurrekontuak”.

Bertaratutako batek dio:

“Ingurugiroari buruz, gaur Agenda 21 ekimenaz jakin nahi nuke horri buruzko partidarik ba ote dagoen”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Gaia ikutu dugunean esan dut baliabide ekonomikoak izango ditugula oztopo. Bigarren esan Agenda 21 ekintza plana onartzeko dagoela beraz zaila da aurrikustea ezer. Bestaldetik zeharka edo aurrekontuen zati bat, inbertsioen zati bat, dijoa Arau Subsidiarioen rebisio orokor bat egiteko eta hor izan beharko du nolabait Agenda 21 zerrikusia. Anoetarrok guztion artean aurrikusi beharko dugu nolako herria izan behar dugun. Oraindik ere garaiz gabiltza, 2006 aurrekontutan ekintza plana finkatu gabe bait dago. Aplikatu ditzagun lehenengo ekintza planak eta gero lehentasunak eta apurka-apurka joango gara osatzen”.

Bertaratutakoak dio:

“451 programan, hainbat kanpaina, zertarako da hau?”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Hemen daude euskara biziberritzeko planaren inguruan hainbat kontzeptu aurrikusita. Nolabait ekintza plana bat eginda dago honen harira eta irakaskuntzan badago adibidez kapitulu bat “D ereduaren” aldeko apostua egitea, euskalduntze alfabetatze beste partida bat dago aurrikusita, familia berri osatu eta bikote euskaldunek bai haurrekin eta bai elkarrekin erabilera sustatzeko beste partida bat dago. Ezkondu eta Jaunartzea egin behar dutenei oroitzen txartelak euskaraz laguntzen egitea aurrikusten da, haur jaio berriak eskolatzera dijoazten gurasoentzako euskararekiko sensibilitate egitasmoak beste partida bat, euskeraren ahozko erabilera neurtu herrian, aldian-aldian, beste partida bat, euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskeini, nolabait gero hau guztia guzatzeko euskara teknikariaren lane ere hor dago. Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskeini, beste partida bat. Empresa, komertzioak euskara erabiltzeko konpromezuak hartzea eta plana bultzatu, egutegiak euskaraz egitea; aurten euskarari zuzendutako zerbitzu egin nahi da. Beste kapitulu bat dirulaguntzen mailan nolabait komunikabideetara zuzendua hainbat euskeraren erabilera bultzatzen den komunikabideei laguntzeko dirulaguntzak”.

10. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Guri erreklamatzeko zaigu 2005 urteko kotxe baten zerga zor dugula. Kotxe honek ez du ordaintzen lehengo urtetik, 2004 urtea, exento dagoelako. 2005 urtea jarri zen bandoan esaten zen epean ez nulako aurkeztu ukatu egiten zait. Aurten ere eman diote, eman beharrean indefinidua eman diote aurtengo bakarrik. Nik ez dut liskarrik nahi. Ez da 100 euroengatik baizik eta “dignidad de las personas”. Murriztasuna daukaten pertsonak laguntza batzuk Foru Aldunditik etortzen direla eta martxakatu egiten da famili oso bat, agian da “cuestión personal”, bera ez da etorriko baina ni etorriko naiz Anoetako bizilagunengatik. Egundokoak izan ditut, bai municipalarekin, esan nion, langile bat zara eta kontuz!, ekarri ertziana “porque me cargo”, sekretarioarekin berdin, hau da empresa publikoa eta nahi dut soluzio bat eman, hanka sartu dugu ba sartu dugu baino 2004 gauza berarengatik ematen diote pertsona berari, kotxe bera, eta dokumentu berdina, aurten eman diote berdina eta ezin dut gehiago.

Gure kasua da bi kotxe ditugu eta biak bere izenean daude, ezin dut ulertu baina kexa goitik dator, nik ez dut Tribunaletara joan nahi.

Beste gauza bat, etxeko presidentea nago eta beste galdera bat, euria egiten duenean etxean etortzen zaigu ura zikina, nik hemen galdetu nuen eta esateko a Guipúzcoa Ura. Eta zaborrak nork biltzen ditu?”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Uraren kudeaketa guztia emanten du Ur Kontsorzioak eta berdin alkantarillarena, edozein arazo baduzu zentzu horretan Ur Kontsorziara bideratu behar duzu”.

Bertaratutakoak dio:

“Eta ez dago ura pribatizatuta, lehenago Udaletxeak ematen zuena?”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Kontsorzioa ez da pribatua, Foru Aldundiaren zera bat, erdi publikoa esan genezake. Eta ura zikina daukazu ba?”.

Bertaratutakoak dio:

“Badaude egunak ezin dena edan, ezin da erropa zuria garbitu”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Hori analizatu egin behar da”.

Bertaratutakoak dio:

“Eta nork analizatuko du, Udaletxeak? Hartzen dute muestra edo nork?”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Ur Kontsorzioak. Nik dakidana da, depositu berria egin zenean tuberi garbiketa bat egin zela loi dezente zegoen, garbitu zen eta arez gero nahiko garbi dauket etxean eta udaletxean, kanilatik edaten dut nik eta”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, gaueko hamarrak eta berrogei minutu direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.